



### *A eredia makilatzeak ez du baliagarriagoa bilakatuko*

Hezkuntza Sailburuak lehenengo 100 egunak jardunean bete ez baditu ere, atzo legebiltzarrean A ereduaren birmoldaketaz eginiko adierazpenen aurrean, STEE-EILAS behartuta dago bere kritika publikoki kaleratzera.

Azken 27 urteotan, A ereduak argi erakutsi du baliogabetua geratu dela euskarazko hizkuntza gaitasunik gutxienekoak lortzeko. Hori frogatuz, besteak beste, hortxe daude Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena hizkuntza ereduez, ISEI-IVEIren ikerketak B1 eta B2 hizkuntza mailez eta horiekin batera, irakasleok gure ebaluazioetan eta esperientzian zehar aspaldidanik antzeman izan dugun errealitate kezkarria, hau da, euskarari dagokionez A ereduak inolaz ere ez duela bermatzen erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza.

Hau guztia hezkuntza komunitatean soberan ezaguna dela jakinik, ez dugu ulertzen nolatan Hezkuntza Sailak eta PSEk euren kabuz A eredia makilatu eta berrindartu nahi duten, PPren eta euskararen normalkuntzari oztupoak ipini nahi dizkioten sektoreen aurrean amore emateko ez baldin bada. Aurrerantzean euskararekiko hartuko dituzten beste neurriak ildo honetakoak badira, zail izango da hezkuntza komunitatearekin adostasunak lortzea. Ez zaigu iruditzen hurbilketak bilatzeko keinurik egokiena denik.

Hau ez da bidea, unilateralki hartutako erabakia da eta hezkuntza eragileekin inolako adostasunik landu gabea. Bat-batean izandako ateraldi bat dirudi eta sarritan entzun izan dugun kontsentsu hitza ez dugu inondik ere sumatu.

A ereduaren balio eza azpimarratzeaz gain, STEE-EILASEk bere iritzia eta ekarpenak mahai gainean ipintzen jarraituko du, egungo hizkuntza ereduaren sistemak dituen beste hutsuneak gainditzeko bidean. Izan ere, euskararen normalkuntzak berrindartze sakon bat behar du eta ez itxurakeriazko neurri hutsalak.

2009ko ekainak 26

STEE-EILASEko Batzorde Iraunkorra

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdán 5 (bajo)	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	📠 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alcorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	📠 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	📠 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
<b>NAFARROA:</b> Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	📠 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org